

DBHO ARAUTEGIA:

1.1. EBALUAZIOA:

Batxilergoko azterketen araudi orokorra:

- Maiatzaren 30eko **76/2023** Dekretuak, zeinaren bidez Batxilergoko curriculumak zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzen baita, **28.2 artikuluan** xedatzen duenez, ikasleen **ebaluazioak globala, jarraitua, hezigarria eta ikasgaien arabera bereizia** izan behar du, eta kasuankasuko **konpetentzia espezifikoak ebaluatzeko irizpideen arabera** egin behar da.
- Hezkuntza-etapa honetan irakasleek ikasleen ikaskuntza-prozesua ebaluatzerakoan kontuan hartuko dituzte curriculumeko elementuak, ikasgaien multzoan ikasle bakoitzak egindako ikaskuntza-prozesuaren bilakaera, ikaslearen heldutasuna eta ikasturtean zehar izandako errendimendu akademikoa, Batxilergoko helburuei eta irteera-profilari dagokienez; eta, bigarren mailan, goi-mailako ikasketetan aurrera egiteko dituen aukerak.
- Ikasleei **ebaluazio-prozesu etengabea** egiteko, ikasleek **etenik gabe joan beharko dute eskoletara**, eta ikasgai edo esparruetarako programatutako jarduerak egin beharko dituzte. **Justifikatu gabeko hutsegiteak ikasgai bakoitzean % 20tik gorakoak edo denera 8 ordu izanez gero**, ikasleak **etengabeko ebaluaziorako eskubidea galduko du, baina ez ditu galduko ohiko deialdia eta ezohiko deialdia**, matrikulatutako ikasle guztiak kalifikatzeko egiten direnak.
- Ikasturtean zehar, **ebaluazio bakoitzaren amaieran** bost eguneko **azterketa astea** egingo da. Egun hauetan, klaseak eten eta egun bakoitzeko bi azterketa gehienez egingo dira. Azterketen **antolaketa irakasleek** egingo dute.
- Ikasgai bakoitzean, **irakasleak erabakiko** du ebaluazioan zehar egin daitezkeen **azterketa partzialei, lanei** edota bestelako **jardueri** nolako **tratamendua** emango zaien. Hauen helburua ikasleen ebaluazio prozesua arintzea eta errendimendu akademikoa hobetzea izango da.
 - Azterketa astea baina **2 aste lehenago ez dira azterketa partzialak** egingo.

- Edozein **azterketa** edo ebaluazioan zehar egiten diren **aurkezpenak** edo **jarduerak egiteko eskubidea izateko kontuan hartu** beharrekoak:
 - **Azterketa egunean** ikaslea **gaixorik** badago, **medikuaren justifikantea edo gurasoena (egunean bertan)** ekarri beharko du eta azterketa egiteko **aukera mantenduko** da, **baina** azterketa hau **errekuperazio astean** egingo du, leheneneko aukera bezala. Gaindituko ez balu, dagokion irakaslearekin adostuko du errekuperaketa data.
 - **Azterketa egunean** eta **justifikatu gabe** saio batera edo batzuetara etorriko ez balitz, azterketa egiteko **eskubidea galduko** du. Ondorioz, errekuperaketa egin beharko du azken aukera bezala.
 - Azterketa egunean ikasleak **aurrez hartutako mediku txanda** badu eta azterketara iristen bada, azterketa egiteko eskubidea mantenduko zaio. Hori betetzeko, **azterketa eguna baino lehenago ekarri beharko du mediku txandaren justifikantea**. Aldiz, azterketara iristiko ez balitz, **azterketa hau egiteko aukera mantenduko litzaioke, baina errekuperazio astean egin behar luke**. Errekuperazio astean gaindituko ez balu, beste aukera bat adostuko litzateke.
 - **Aisialdiko bidaia dela eta** azterketa bat galduz gero, azterketa hori egiteko aukera galduko du ikasleak eta **zuzenean errekuperazioa** egin beharko du. Errekuperazioko azterketa gaindituko ez balu, ohikoetarako geratuko litzaioke.
- Ikasle batek azterketa bat eskatu nahi badu, gurasoek **idatziz eskaria** egin beharko dute eta azterketaren fotokopia bat emango zaio ikasleari bilera beharrik gabe.
- Azterketa egiteko momentuan, **mugikorrak eta erloju digitalak ezingo dira gainean eraman**. Ahal den kasuetan, gelatik kanpo egongo dira.
- Aurrez aipatutako ebaluazio-irizpide eta erabaki guztiak Batxilergoko irakasle eta zuzendaritzaren artean kontrastatu eta adostu dira.

Ondorengo irizpideen arabera jokatuko dugu NOTA ALTXAKETA egiteko:

- Nota altxaketa ebaluazioan edo ohikoetan egingo da, **bietatik bat** aukeratu beharko dute. Kurtso amaieran ezingo da berriro 1. eta 2. ebaluazioko nota altxaketarik egin, soilik 3. ebaluaziokoa egingo da, baldin eta aurrez egin ez bada.
- Nota altxaketa **ebaluazio osokoa** izango da, hau da, ikasgai horretan ebaluazioan egin diren zati guztiak egin beharko dira berriz ebaluazioko nota altxatzeko.

- Nota altxaketa egiteko **konpromezua** hartzen duenak, **azterketa egin behar** du. Ondoren, ikasleak erabaki dezake zuzendu edo ez.
 - Ikasleak “ez zuzendu” adierazten badu, Alexian lehenengo azterketaren nota jarriko da errekupeketa gisa, nota altxaketa egin duela adierazteko.
- Gaiaren arabera, nota altxeketak errekupekazio ariketa berdinak **eta gehigarri bat** izan dezake.
- Nota altxaketak **azterketak** izango dira, ez lanak.
- **Gehienez** ikasle batek **3 nota altxaketa** egin ahal izango ditu ebaluazio bakoitzean.
- **3 suspentso edo gehiago** baditu, **ezin da** nota altxaketarik egin.
 - 2 suspentso baditu, nota altxaketa 1 egin dezake.
 - Suspentso 1 badu, 2 nota altxaketa egin ditzake.

Ondorengo irizpideen arabera kalkulatu dugu NOTA FINALA:

- Ebaluazioaren emaitzak zerotik hamarrera bitarteko zenbakien bidez kalifikatuko dira, hamartarrik gabe, eta bostetik beherako kalifikazioak negatiboak izango dira. Ezohiko probarako deialdian, ikaslea ez baldin bada probara aurkezten, adieraziko da ez dela aurkeztu (EA), eta hori kalifikazio negatibotzat hartuko da ondorio guztietarako.
- Ebaluazio negatiboa duten ikasleak gainditu gabeko ikasgaien ezohiko deialdian aurkeztu ahal izango dira. Ikastetxeek deialdi hori antolatuko dute ikasturtea amaitu baino lehen.
- Batez besteko nota kalkulatzeko, hezkuntzaren arloko eskumena duen sailak ezarritako aplikazio informatikoa erabiliko da. Hau izango da batez besteko nota: 1. eta 2. mailetan ikasi diren eta Batxilergoko titulua lortzeko behar diren ikasgaietako kalifikazioen batezbesteko aritmetikoa, ehundar hurbilenera biribilduta, edo, distantziakidetasuna izanez gero, goiko ehundarrera biribilduta.
- Nota altxaketa, errekupeketa, ohiko eta ez-ohiko azterketetan, **lehenengo azterketako** notak %20ko pisua izango du eta **bigarren azterketarenak %80**.
- **Batez bestekoa** kalkulatzeko:
 - **Azterketan 5 bat** atera behar da.
 - **Errekupekatan nota minimoa 4** bat izango da.
- **Zatiren bat gainditu gabe** baldin badu, eta errekupekaztea eskatu behar badiogu, **buletinean** nota **GUTXI (4)** izango da.

1.2. PUNTUALITASUNA:

- Guztioi dagokigun ardura izanik, **klase sarreretan eta irteeretan puntualtasuna ezinbestekoa** da funtzionamendua egokia izan dadin.
- Puntualtasunik ez dagoenean, irakasleak ALEXIAN jasoko du, tutoreak jakin dezan.
- Justifikatu gabeko puntualitate falta bakoitzeko ikasleari 0,15 kenduko zaio ebaluazio amaierako emaitzatik.

1.3. ASISTENTZIA:

- Irakasleek **egunero asistentzia kontrolatuko** dute haien saioetan, jarraipena Alexia bidez eginez.
- Klaseetara **asistentzia nahitaezkoa** da. Klase orduak, ikasleentzat direnez, egunero-egunero etenik gabe jarraitzea ezinbestekoa da. Klaseetara **huts egitea kasu guztietan justifikatu** behar da.
- Ikasleek **etortzerik ez dutenean, familiak tutoreari jakinaraziko dio**. Aldez aurretik jakinaraztea ezinezkoa denean, **egun berean**, telefonoz edo emailaz abisua pasatuko diote tutoreari (hurrengo egunetan ez da onartuko).
- **Justifikatu gabeko** kasuetan tutoreak **gurasoei deituko** die, **egunean bertan**, eta arrazoiak zein izan den jakiteaz gain, horrelako kasuetan jarraitu beharreko prozedura zein den ere adieraziko zaie.
- Irakasleak huts egitearen **justifikazioa ekarrita ere**, zenbait kasutan, irakasleak ekarri duen justifikazioa **egiaztatzeko** tutoreak gurasoei **deitu** ahal izango die.
- Ebaluazio bakoitzean **irakasgai bateko ordu kopuruko %20a**, edo **denera 8 ordu** justifikatu gabe izanez gero, irakasgai horren **ebaluaketa egiteko aukera galduko du** irakasleak eta **azterketa finaletan egin** beharko du.
- **Ikasle bakoitzari, justifikatu gabeko hutsegite bakoitzeko, 0,25 kenduko zaio joan ez den ikasgaiari.**

1.4. IKTen erabilera:

- **Ikastola barruan** irakasleek **ezin dituzte sakeleko telefonoak, audioak edo antzerako aparatuak erabili**. Tresna hauen beharra sortuko balitz, irakasleak esango lieke aldez aurretik; beraz, garbi geratu dadila irakasleak momentu bakoitzean erabakiko duela beharrezkoa den ala ez (eta beti irakasleak baimendu duen helburu eta erabileraekin).

- **Erabiltzen** ikusiz gero, **jokabide desegokia (arina)** izango da eta **telefonoa** edo dena delako aparailua **irakasleak jasoko du 24 ordu igaro arte** edo **gurasoak bila etorri arte**.
- Ikastolako edozein eremutan ere, aparailu hauek, helburu akademikorako erabiltzen dituzten ordenagailuak barne, **ezin dira erabili baimenik gabeko argazkia ateratzeko edo bideoa grabatzeko**. Jokabide hauek bizikidetzaren aurkakoak dira gutxienik, eta kasu horietan dekretuak dioena aplikatuko da. Gogoratu behar dugu ikastola eremu pribatua dela eta ezin dela baimenik gabeko inolako grabaketarik egin aparailu hauekin eta are gutxiago sarean jarri.
- Irteeren helburua pedagogikoa da, eta aldeztu aurretik denontzako programaturik daudenez, ikasleek telefonoak, audioak edo antzerakoak autobusean eta beraien tarte libreetan soilik erabili ahal izango dituzte (erabilpenak beti egokia izan behar du eta irakaslearen baimena beharko da).
- **Atsedean garaian** telefonoa erabiltzeko, **ikastolatik kanpo** egingo da. Ez da **inoiz ikastola barruan** telefonoa erabiliko, naiz eta atsedean gaiara izan.
- **Ordenagailuaren** erabilera erabat **akademikoa** da, beraz, ikastolako orduetan ezingo da baimenduta ez dauden web orrietan ibili. Egitekotan, jokabide desegokia (arina) izango da eta irakasle taldeak erabakiko du zer egin.
- Oro har, **edozein tresnaren erabilera gauzatzeko irakaslearen baimena beharko da**. Horrelako tresnaren bat **ekartzen duenak bere ardurapean** egingo du.

1.5. Bestelako jokabideak:

- **Komunen erabilera:** ikasleak beti **irakaslearen baimena** beharko du komunera joateko. **Klase garaian** egingo da erabilpena, baimena eskatuz, eta **inoiz ez klaseen aldaketak** egiten direnean.
- Ikastolako instalazioak, baliabideak eta materialak, edo eskola elkarterako gainerako kideenak diren jabego eta baliabideak, guztion ardurapean daude (gelak, apalak, mahaia, aulkiak, ateetako sarrailak, komunak, iturriak, liburuak, baliabide teknologikoak, e.a.). Erabileraren poderioz konpondu beharreko hausturak (nahi gabe egindakoak) ikastolak bere gain hartuko ditu. Nahita edo erabilera desegokiaren ondorioz eragindako kalteak, aldiz, jokabide desegokitza hartuko dira, dagokion trataera emanez.